

ONSA HILCECO BIDIA

VOIR PAGES 27-30 (1)

Deus honic ené libriã ediren badeçaçu, ohoria, eta laudarioa emaçü lincoari, eta ez niri, ezta niganic heldu hontarçuna, baina bai, lincoaganic, *omne datum optimum, & omne donum perfectum de sursum est, descendens à patre luminum*. Iacob. I.

Ezpada deus honic, erraçü libriaren, eguiliac baçiala borondatia onsa eguiteco, eta lanaren mensa, eta falta, reparatçen eta desençusatçen diala, languiliaren, intentioné, eta borondaté honac, *voluntas dantis reparauit paruitatem dati*.

Ohoratçen baduçü çuré approbationiaz ené pieça mendria, eta eguiten çure arimaren profetia, haren *Iraccurtçian*, norc çer pagu, eta recompensu handiagoric nahidu mundian; lincoari othoy eguinendut bici niçan egunetan çuré hilçiaz lurrian orhituric, sainduqui biçiric, eta sainduqui hilic, mundu hontaric landan, çeluco resuma eternala eman diçaçun. Amen. [7]

GVC pian signatu guir én Theologinec, fedé eguiten dugu Iuan de Sansons Oloronaco guré iaun Apescupu Reuerendissimo eta Illustrissimouarén manus irracurtu dugula libru haur çoin baita titulatuhonsa hilçeco bidia, Iuan de Tartas Arueco Iaun eretorac composatia,

(1) Un error de imposición en el texto de *Gomendiosco Lettra* nos obliga á rehacer las pag^s 27, 28, 29, 30 del primer número de esta *Revista*. Los suscriptores las recibirán con esta 2^a entrega. Y puesto que empezamos de nuevo la reimpresión del *Onsa Hilceco Bidia* hemos decidido, ateniéndonos á razones en otro lugar expuestas, reproducir exculpulosamente el texto de la primera edición, para lo cual respetaremos incluso las faltas de imprenta. Estas se corregirán mas tarde en un *Comentario*.

Une erreur d'imposition dans le texte de *Gomendiosco Lettra* nous oblige à refaire les pages 27, 28, 29 et 30, que nos abonnés recevront avec le présent fascicule. Et, puisque nous sommes forcé de recommencer la réimpression du *Onsa Hilceco Bidia*, nous nous sommes décidé, pour des raisons déjà exposées dans un travail précédent, à reproduire scrupuleusement le texte primitif en respectant même les *errata* de la première édition. Nous corrigerons, d'ailleurs, ces derniers dans un *Commentaire* qui paraîtra plus tard.

J. DE U.

çoinetan ezpaitugu deus eriden fedieren contré, baina bay lehenago iugeatu profeitable çanen dela imprima badadi, eguinda atarratçen auentian hamar guerrenian vrthé contatçen denaren 1657.

A. DE CONGET, *Atarraçeco Erretor, eta çuberroa herrico Vic. Generala,, eta Officiala.*

B. IAVREGVIBERRY *Idauzeco, eta mendico Erretora.*

[8] **G**VC beherian firmatiac icussy dugu, eta iraccurtu liburubat çein minço baita, eta eracusten baitu euscaraz onsa hilçeco bidia, Iuan de Tartas Arueco Iaun eretorac eguina: çeinetan eztugu erideiten fedé Catholica, Apostolica Romanuaren cõtraco gauçaric, bana bai gauça proboxosic bat bederaren ieincoarén beldur saindian bici araçiteco, eguin bidera eracarteco, hartan bada, han exequiteco, eta arimaren salba mendiaz orhitaraçiteco. Horregatic iugeatçendugu merechi diala arguira ialgui: Vtziaten eguinda abenduaren sei garrenian, mila, seitan ehun, berrogei eta hemeretçi garrén vrthian.

D. IRVMBERRY, *Vtziateco Prioria, eta Aqiçeco Vic. Generala, eta Officiala Bassanauarren,*

Ce 6 Decembre 1659.

[9] **I**Cussiric ongui hilceco bidiaz minçoden liburubat IOANNES DE TARTAS Aroüeco Iaun Erretorac euscaraz eguina, Eztugu deusic caussitu fedearen contraco denic: aiticitan dugu iuiatu bidé hombat beçala dela Christinoaren vertutean auançaeraciteco, baita ongui hilçeco disposatçeco: hartaracotz mereçidu lehen bai lehen imprimadadin; Eguia honetan emandugu guré signadura orçaiçen vztaillaren lehenian 1665.

IOANNES Bajonaco Apespica.

EVscal herriac Tartas
 Lauda doctor handia
 Euscaldun oroc harçaz
 Dugu libru hautia
 Sainduqui biçitceco
 Harc doctrina saindia
 Celurat ioayteco
 Emaytendu bidia.

[10]

Iuan de Baguarie Camblonque,
 eta Susmioco Retora.

ONSA HILCECO

BIDIA

[11]

CAP. I

Notam fac mihi viam in qua ambulem. Psal. 142.

SOLINVS errameco istorian obatec dio bere libruan bertçe ordus
 erramen bertçé gauça ederren artian bi templa, edo bi eliça, cirela
 çointaric bata baitçen templum virtualis, bertatiaren templaia eta
 bertçia templum honoris, ohoriaren templaia, bi templa honrac ma-
 nera eta, guisa hartan çiren fondatiac eta bastitiac non impossiblè
 baiçen ohoriaren templian nehoursse sar ladin, ezpaladi behiri
 sar, eta iragan bertatiaren templatic. Erran nahi çian autor harc, etçela
 iagoiti içan eguiazco ohoré solidoric, bertutiaren moyenez; espaliz
 ardiatsi, irabaçy, eta aqisitu, eta ohorez bethé, eta aberatz hilteçeoç,
 behardiala, nehorc bici mundu huntan, aberatz bertatez, eta bertatia
 posseditu triuaillez, doloréz, penaz eta, tormentuz. Ezta ez iaquitia,
 doctrina aquisitçen, bonatheran aurherquerian, ohé hounian eztiqi,
 eta plaçenqui lo eguinic, pausatçian bena aquisitcenda triuailllu handiz,

[12]

beillaz, esquier thu eguinez, eta gauaz cãdelaren vrrina bestiac lo dançala, hurrupatçez, dio poetabatec ederqni.

*Non iacet in molli venerada scientia lecto
Ipsa sed assiduo parta labore venit.*

Ezta halaber hiltçe honic, ezpada, biçitçe honic, onsa hil nahidenae, behardu onsa biçi.

Bekhatoria eta bekhatoressa çier minço niz, neuré buruari, eta mundu orori, euscaraz eguin dudan liburuto hontan, eta diot bi templa hetçaz, endelgatçen dela guré biçia, eta guré hilçia, sartçian biçian hantic ialquitian, hilçen guira, batetic ialquitia, da, bertçian sartçia biçi guirela, hilçen guira, eta hilçen guirela biçiguira nolaco baita goure biçia, halaco da gouré herioa, gaixto bada biçitcea, gaixto daté herioa, hounbada biçitcea hondaté herioa, eta gouré jaincoaren çonbait miracuillu handiz campoan, gaixqui bicitçen denac Iaincoarē eta eliça saindiaren manu saindien contré, halacoac, eta alacoec, beharduté fingaitz eguin, peritu, eta damnatu, hala nola Iaincoaren, & haren eliça saindiarē maniac beguiraturic hilçē denac, eta hiltçē direnec beharbaituté finhoun eguin, Iaincoa icoussi, eta haren gloria eternalian saluatu, erran dian, beçala, sã Augustinec, *vix potest bene mori qui male vixerit, & vix potest male mori qui bene vixerit*. Nequéz onsa hilçen ahal da, gaixqui biçi içan dena, eta nequéz gaixqui hilcenda onsa biçi içan dena.

[13] Ené adisquidia saluatu nahy baçira, othoy beha çaquitçat, eçarrico çitit bidé honbatean eta bidé harc guidatuco çitu chuchen, eta segurqui paradussiaren erdiala, bidia da chuchen, segur, houn, asqui aisa, eta ez hanbat gaitz eta ez hanbat khechu eré Iarrayqui cité, eta segui eçaçu ené lumaren herecha, eta hatça, çoaça aytçina, aldebererat, ez bertcerat, ezquer, ez esquin makurthu gabé, eta edirenen duçu bidé harén burian hilçé hōbat, eta haren ondouan Iencobat çuré ayduru coroabat esquian, çuré recompēsatçeco proméz emayten drauçut ainguriē eta guiçonen aitçinian, Ienco aren parthéz, eta ené ohoriaren gaignian ené errana eguia frogatuco duçula, éta ezpada hala, éraçu mundu orory, affrōturbat niçala guiça gaixtobat niçala, aphéz gaixtobat niçala eta ené libruto honec, eta nic merechy dugula suhandibate-tan biçiric erra guitian.

Sobera egon enadin çury erran gabé, çerden ené bidia, ene secretu handy hori, eta ené gogoa pundu handy, eta important hontan, saluationesco eguitecoan, eta halaber enuya eçitian, iaquin eçaçu, saluatçeco bidia dela ardura hilçiaz orhitçia, herioaren beré beguien aytçinian eta bihotçaren erdian iossiric, eta ezquiribaturic eduquitia.

Saluatu nahidenac, behardu onsa hil, onsa, hil nahidenac, behardu

onsa bicy, onsa bici nahi denac, eztu behar bekhatu-ric eguin, bekhatu-ric ez eguitecotz ardura behardu herioaz, eta beré hilçiaz orhitu.

Hilçiaz orhitçia dela eguiazco bidia saluatçeco, ahal beçain labursqui, eta clarqui nahidut frogatu laur guisaz, eta laur moldez, eta laurac oro esperança dut arcordu honbatetan içanen direla ené pensamendiaren mundu guçier explicatçeco, eta ené intentioné hounarē euscalduner, particularqui çuberouaco herrian ené adesquider, endelgaraçiteco, çombat handiden ené desircundia, eta borondatia, ooren hilçé honaren, eta haren ondouan, ooren saluamendiaren icousteco. [14]

Lehen guidamendia, eta lehen escola emanenduté bidé hontan, paganoec, antiqutatian biçi içan diren, gendé prestuec.

Segonta emanendu escritura saindiac, hanbat legué çaharrian, noula berrian, iracourtçen dirén passagé sacratieç.

Herena emanenduté, doctor saindieç alegatçen dutien autoritaté saindieç.

Laur guarrena emanendu araçoignac, hortic, hebetic, pundu hontara, iustoqui eta apropos hedatçen, eta iuntatçen ahal denac.

Ené adesquidia, bekhortia, etçitiala othoy offensa, ezteçaçula othoy, aldé gaitzçera har, eneganic eta ené lumaganic ezpalin baduçu ereçebitçē balacuric, edo lausencuric, laur pundu hoyec acaua artiã, eztiroçu entçun bertçé, içenic, bekhortia, eta adesquidia, baiçy, eguin eçaçu possiblé bada çuré profeytia libru hontan icoussiren, edo entçunen duçun conseillu hounez. sarcité bidé hontan lehen, beno lehen, eta çuré vrhatxetan etcitiala enuya, bidiaren bazterra, azquen termagüia, eta chedia icousartian.

Philippus, Macedoniaco erregué handi harc, egunbatez victoria handibat irabaçy çian, athenasaco hiriaren contré, çoin baitçen greçiaco eresumaren hiry capitala charona deytatten çen hiriaren ayçinian, eta gueroz hantic harat, princé çuhur harc, beldurrez, vrguillia, vanitatia, eta superbia haren espirituaren, eta harén hunaren guehyen guerta litian, mundian çen goiz oroz argui puntan iguzquiaren ialquitiari, eracarten çian beré pagetarie bat beré ohiaren aitçinera eta pagé harc bere salutationian lehen hitçac erraiten çutian erregueri, erregueren manuz, guisa hontan, *O rex memento quad homo es, & mortalis es.* [15] Phodiginus lib.19.cap.3 lectionum antiquarum

Erregué, iratçart-cité, eta orhit cité, guiçon çirela, mortal çirela, hil beharduçula.

Bekhortia non cira pagano harc etçian legueric, federic, euangelioric, ez iencoric ala beina egunian behin nahিian ençun hil beharçiala.

Cuc aldiz hayetarie orotarie baituçu eta eliça saindian biçi baitçira beldurnuçu sorthuz gueroz hil artian, beharden moldian, eta forman behin eré çuré herioaz, eta hilçiaz, orhitu faltaz, miserablequi biçi baitçira eta çuré çecuria carreyatçen, çuré orena gin dadinian, desoho-

rez, eta confusionez betheric, miserablequiago hil citian eta damna.

[16] Alexandré handiac Philippus haren semé digniac, lausencu, flateria, eta balacu handiric erreceuitçen çian beré demboran, bere gorteco courtisan, eta charlatanen ahouetaric, eta hayen escriuietaric, oroc errayten çioten ichilic, eta aguerriz, immortal çela Ienco handien arraçatic, eta odoletic, hayen saheix eçurretic ialquiten çela, eta Iupiter bait çen Ienco ororen guehiena, haren semé propia, eta naturala çela hambatoqui herioua baitçen bertçé guiçon oraren guehien, eta laun, bere armac haren centré, galtçen çütiala, hora çela guiçonon erreguia, eta herioaren nabussia eta launa.

Plutar. in vita Alexandri. Bena egunbatéz hiribaten escaladaz hartçeco, armadaren burian, murraillian gora igayten cela icoussiric matraz oucaldiz çaurturic, eta colpaturic, odola vherraz eta churrutaz beré gorputzetic çouela, oihu, eta heyagora handibat eguin çian beré courtisanen contré, guisa hontan, *Omnes me filium iouis esse proedicabant, sed hoc vulnus me hominem esse clamat.*

A! traidoré falsiac, eta trompurrac, oroc çinéç eta goraqui cantatçen çunien ny immortal ninçala, eta Iupiter Ienco handiaren semia ninçala, bena ené gorpitzeco çaury honec eta colpu honec, çien erranaren contra dio, eta eracoustendu garbiqui mundu ororen aitcinian, ni eré bertçé guiçonac beçala, mortal niçala, miserablé, eta heriouaren suiet.

[17] Bekhatoria, princé pagano gaztebaten, çouignec aguian ezpaitu ouquen, ez lehen, ez gueroç, beré coragian lagunic, ez pareric, erranaz, eta aitormenaz, eguineçaçu çuré probechua aguian edo mundiac, haraguiac, deabriac, aberaztarçunec, eta çuré voluptaté saxuec itxuturic, inganaturic, eta trompaturic, eztuçu nahi sinhetxi badela hilçeric eta herioric, edo sinhetziric eré badela, iduritera emaytenduçu çuré obra gaixtoez eztuçula sinheste badela, bena ezteçaçu dudaric har baduca eta behin beharduçu hil, eta hilez gueroç, orhitçite badela mundu hontaric landan, bertçé mundubat, çouinfa seculacotz, edo paradusian Iencoarequin, çuré arimac behar baitu buros içan eta placer hartu, edo infernian seulacotz demonio oraren compagnian, damnatu, erré, eta higatu educaçu hori gogoan, eta herioac bekhatian etçitean surprèni, hartçaz, ardura, disgraçian bereré, incontru gaytçetan, malhurretan, eta aduersitatetan bereré orhoitçitéz, onsa haren moyenez biçitçeco, eta onsa biçiric, onsa hiltçeco.

Cardanus in Dialoguo mortis. Aristoteseç hiltçian, historiac dio, regret eta doloré handirequin discurs eta propos labur, on, eta eder haur eduqui çiala beré adesquider.

Fæde in hunc mundum intraui, anxius vixi, perturbatus egredior, quo vadä nescio, ens entium miserere mei.

Theihu, eta saxu mundu huntara gin niz dudatan bici içaniz, oro

khechu eta nahassi ialquitē niz, norat noan estaquit, içaté ooren içatia, pietaté, eta misericordia niçaz eguiçu.

Bekhatoria behaçité hitz hoyer, igusquiac iagoyti lurriä ikhussi diä guiçonic sauätenac, eta subtilllenac erranac ditutçu, philosophiae beré princé eçagutu diçu, antiquitaiac harén esquiribiac admiratu citiçu eta adoratatu quasi, oraico demboran guc eré haren espiritu ederraren inuentioné ederrac ohoraturic, nigar eguiten diogu haren azquén fin mal hurré saren deithoratçez eta doluz, çeren behar et çirenac sobera estudiaturic, eta behar çirenac ez asqui pherechatuz, eta contemplaturic naturaren secretiac sobera bessarkhatuz, eta naturarē authora, baita Ienco bakhoiçta, eta Ienco biçia, hari asqui amorio, eta adorationé eman faltaz, miserablequi galdu, eta peritu içan baita, Considera eçaçu personagé handy hura beré paganismoan, sortçetic, hil artian, herioaren beldurric, beré ariman, beré od olian, eta beré heçurretan, harritçé, eta ikharatçen çiala, eta quasi oren oroz, berac hilçian ait-hormen eta confessioné eguin çian beçala, herioaren Icieriac, eta aprehensioniac iuiamendia nahassiric, eta cordocaturic, beré sensu onetic campoan eçarten çiala, eta eçarri çiala, eta Aristotesen escolan, çein içan baitçen Alexandré handiaren nabussi eta gobernadoré, ikhasse çaçü lectioné eder haur, herioaren beldurra, hantic ikhasdeçaçun onsa biçitçeco bidia, hura baduçü asqui duçu hura gabé bertçiac oro guti valio, bat mens, oro mens, manqua vno, manqua todo, çioçu Espagnolac, escola hartan lectione on hori, har badeçaçu gogoan, herioa içanenduçu çuré muthil eta çu haren Iaun, eta ez herioac çu, bena çuc herioa, inganatu-coduçu, eta trompatuco.

Platon diuinoac, Aristotesen nabusi handiac, çein batere paganoetan saluatçecoz, arau baitu, eztela galdu, hitz bakhoiçta batez, guré bidia çombat eder den errandu, eta colpu bakhoiçta, aiz cora colpubatez beçala, bidé huntaco naharrac, caparrac, eta ilhorriac trencatu ditu, eta bidetic akhaçatu erran dianian ederqui, eta çuhurqui.

Summa philosophia, est mortis meditatio.

Philosophia, prudentia, çuhurtçé oraren guehyena da, herioaren meditationia, herioaren memoria, herioaren beldurra, eta hartçaz orhitçia.

Erran nahi du çuhur harc, bertcé iacquitaiac, eta doctrinac oro eder dirala eta on, bena bateré ez hanbat, nola hilçiaz orhitçia, oroc presuna, çeintan erideiten baitira, ornatçen, eta ohoratçen dutiela, bena batez ere eziala guiçona eta emastia hanbat edermenez, graçiaz, eta bertatez bethatçen nola herioaren mirail batetan beçala bere beguien aitçinian eta bihotçarē barnean eduquitaiac, ooren beharrena, eta necessarioena

dela herioaren memoriaren fresco eduquitia, mundu guçier, ohorian eta gratian biçitçeco, eta hiltçeco.

Bekhatoria, çuc eta nic asqui ohoré eta auantailla guindikheçu lurriá eta ceruan, çuhur onen conseillu çuhurra bessarkhaturic, guré esperituari, eta guré arimari bertçé hazcurriric, ez bazcaric, ezpagueñdeça eman herioaren imaginaren eta figuraren bazca ona eta bazca saindia baiçy, onza biçiren denac, eta onsa hillen, behardu çuhur içan, eta çuhurtçiaz amurus eta iagoiti guiçona, ez emastia estira çuhur, eta çuhurtçiaz amurus, ezpaduté herioa gogoan: halatan onsa biçi, eta onsa hil nahidenac, hauta beça eta conserua herio beré bihotçean, herioac herioa bihotçetic idoqui artian.

Bekhatoria pagano çuhur heyen erranac, itçul inguru, gora behera gauaz eta egunaz çuré gogoan erabil içaçu eta passeyá, lotzatu ez enuyatu gabé hala eguin badeçaçu herioac çuri eguinenduçu, belçauri, eta çuc hari beguitarté, eta guero çuré azquen orena heldu denian, Iencoac çeruá çuri erranendiçu vngui gin eta eguinen beguitarté.

Ep. 89. Seneca handiac dio ederqui, *moriantur ante te vitia*. Çuré bekhatiac, eta çuré vicioac hil bité çu baino lehen.

Epist. 6. Eta bertçé lekhu batetan erraitendu harc berac *ante Senectutem curauit, vt bene viuerem, in senectute, vt bene morerer.*

[20] Neuré gastetassunian, eguindut neuré eguinahala oro çahartu, eta vrdintu ninçanian, onsa biçitçen ikhas neçan amorekhatic, eta guero çaharçian onsa hil nandin, eta fin onbat eta hurusbat eguin neçan.

Philosopbo sauant harc berac dio oraño beçcé lekhubatetan, herioaz, minço delaric:

Epist. 24. *Quotidie morimur, quotidie enim demitur aliqua pars vitae.*

Egun guçiez hiltçen guira, egun oroz guré biçiaren partebat, Ioaytenda, trenkhatçen, eta laburtçen.

Epist. 13. Senecac oraño continuatçendu, eta erraytén materia hartan berian, *Quid autem est turpius, quam Senex viuere incipiens*. çerda mundian hain desarauc, hain deshonestic, hain estrangeric, eta itxussiric, nola guiçon çaharbat, churitzuz eta vrdinduz gueroz, akhabatu behardianian, hasten denian biçitçen. Erran nahidu onsa biçitçen.

Malhur eta desastré handia heltçenda guiçonari, eta emaztiari, beré çahartçian edo beré gastetassunian beré azquen orenian, hiltçen denian beré bekhatia, quitatu gabé, bekhatiac hura quitatçen dianian harc bekhatia baino lehen, çeren guiçona, eta emaztia hilic eré, bekhatia ezpaita hiltçen biçiric baratçen baita, eta arima gaichoari bertçé mundian guerla eguiten baitio.

Eta nola deabria, eta bekhatia, biac baitira khasi bat, bata ayta, bertçia semia, bata ama, bertçia alaua, bata acia, bertçia bihia, arima gaichoa Iencoaren tribunal handiaren aitçinera presentatçen denian,

aita semé gaixto hec elkharrequin iuntatçen dira arimaren contra eta sathan hastenda ordian guisa huntan Iencoari minçatçen. Ieincó handia, [21] eta Ienco iustua, justu çiren beçala eguiçu iustitia, misericordiac estu hemen lekburic, arima hau enia da, norc berea esta sobera, hau esta curea, bekhatiac hau quitatudu, baina hunec ez bekhatia vrguillia hemenda, auaricia, paillardiaça, adulterioa incestoa, sacrilegia, arneguiac, hordiqueriatic, ohoiñqueriatic, gormandiçac, eta bertçé bekhatiac hemen dira, horiec oro dira ené gediatic, ené soldaduatic, ené semiac, ené alluatic, horiec dira ené coloreatic, ene liureatic, halatan arima gaiçhoatic, Iencoatic, eta haren parabisua galduric, iffernu barnera behardu loan eta seculacotz ioaiten da.

Bertçé aldé fortuna handi bat eta auantail handi bat ardiasten du guiçonatic, eta emastiac, noiz eré aumens hilcian beré bekhatia arnegaturic, eta hari renunçiaturic, beré arima Iencoari, doluz eta çotritionez betheric errêdatçen baitu, çeren halacoarê bekhatiac oro barkhatçê, eçestatçê, deseguiten, eta hiltçen baitira, *quo ad culpam*, (saltem) culporen respectus bereré, çombateré, *quo ad pœnam*, penare respectus batçuetâ ezpaita barcatçê, eta pana harc, edo mundu huntan, edo purgatorioan behar baitu complitu, eta satisfatu, barkhamendu edo justificationé admirable hori eguitenda bekhatiaz bekhatolari, eta bekhatoressari eliçan Iesuchristoc ordenatu dutian sacramendien moyenez particularqui penitentiazco sacramendiaren vertutez, ceiñec significatçen baitu, çotiritçen, operatçen eta emayten, gratia iustificanta, arimari, hiltçê, eta cassatçen bekhatia, handic, *obicem non ponentibus sacramenta noua legis, ex diuina institutione conferunt gratiam ex opere operato*, errayten dian beçala, theologiaren maximatic, legué berrico sacramendiac emayten diala Iencoaren gratia haren beraren ordonâtçaz, Iesuchristoren odol preciaturê vertutés eta meritus bekhatore orori, hayetan ezpada faltatic, Iencoatic bera delaric gratia haren causa lehena eta principala, causa meritorioan Iesu-christo haren semé gugatic guiçon eguiña, causa instrumentala eta morala sacramendiac ministria eliça guiçona, eta halaber sacramendu haren lehen materia eta campoticoatic, guré bekhatiac, materia propia, eta naturala, barneticoatic penitentaren hirur actac, contritionia, confessionia, eta satisfactionia, forma aldiz, apeça, baita Iencoaren ministria, harc beré ahoaz errayten eta pronunçiatçen dutian hitz sacramentalac.

Ordu hartan arima bat bekhatiarén estatutic jalquiric, sartçen da gratiaren estatiala, deabriarê presundeguietaric deliuraturic, guertatçen Iencoaren alaua, eta estatu hartan arima hura mundu huntaric partitçê deniã, sathanec estu hartan eskhuric ez çuçenie, hiltçê da itxutçê da, gortçê da, mututçen da, estaqui Iencoaren aitçinian arimaren contra çer erran, estu deüs ikhusten, estu deüs entçuten.

[23] Eguia da immortal dela beré naturaz, eçin hilçen dela, eta eternal eré dela beré içatez, *à parte post*, çombat eré ezpaita eternal *à parte ante*, çeren demboran creatu içan baita, baiña hil baliz beno aboro arima gratian partitçen denaren contra Iencoaren aitcinian esta aguertçen, eta aguerturic eré, hilbaliz, beno haboro, estu indarric, ez botereric. Horren arro çoiña clar da, cerē arimabat gratian douenian, haren bekhatiac deseguiñ dira, hil-dira, itho eta hondatu dira orachian, erraiten gundian beçala, penitentiaco sacramendian, vnçi itkurri eta piscina sacratu haren, çolaric eta ondarric eztian, çolan eta ondarrian.

Halaco guisaz eta moldez noiz, guré bekhatiac liren ordian haiñ gorri, nola eskharlata, eta haiñ beltz nola tindia, haiñ garbi eta churi guertatçen baitira itkurri saindu hartan nola baita churi eta garbi bortuco elhurra, eta ilhe cotoin churia erran dian beçala espiritu sain-
Isai. cap. I. dian, Prophetaren ahotic. *Si fuerint peccata vestra et coccinum, quasi nix dealbabuntur, & si fuerint rubra, quasi vermiculus velut lana alba erunt.* Eta halatan deabruac ordu hartan estu eskhuric ez çuçenic, bekhaturic esten lekhuana, hambatequi arima hura Iencoaren da, eta desohoria eta confusionia sathanen.

Bekhatoria, desastru handi haren euitatçeco, eta auantaill eder horien posseditçetço Senecaren auisu ona harturic, hil bité çuré bekhatiac ordu onez çu baiño lehen, *Moriantur ante te vitia.*, Ep. 89 Gasté çireño hascité ordu onez obra onen eguiten çuré çahartçian onsa continuaturic, onsa citian orhit çité itxussi dela çahar artian alfer egoitia, bilhua vrdindus gueros escolara ioaitia, birtçiac oherat doaçenian lo eguitera, anhartian lo egonic lanari lotçia eta trauaillatçen hastia. Orhitçité ené bidian sartçera ordu onez çuré herioaren consideratçera, hala, eguin badeçaçu çeruco, eta lureco Ienco çuré aldé içanenduçu, çeruco Aingueruac çuré Aingueru ona çuré obra onac, çuré conçientia ona, Aingueruen eta guiçonen Erreguiña Virginia gloriosa IESV-CHRISTOREN ama, Cerua eta lurra, oro çuré aldé icanen ditutçu iffernua baiçic oro çuré aldé iarrico ditutçu, hec oro çuré aldé badira, nor içanen da çuré contra.

[21] Naffarroaco historiá Frãçiacu Auocat batéz escriuatuã ediretē, da nola Charles Duc de Bourbō, Princé hādibatec? çerbait hostassun edo ressendimenda beré Princé, eta Erregué naturalarē contra harturic, çein deithatçen baitçen François, içen hartaco lehena, armac harén contra harturic, Charles-Quint, Espaiñiacu erregué eta Allemaniaco Imperadorearen aldé, guerla demhora luçez beré Erregueari eta beré Erresumari eguiçiala, hañitz okhasionetā eta (cōbatetan, noiz hurus noiz malhurus içanic, nola armac, iocoa beçala, behin bataren guero bertçiarene contra, eta alde baitira, fiñean Pauia deithatçen den Italiaco hiri haren aitcinian, François Erreguia. Batailla generala galduric hartu içan ceta Españiarat Madrillera eramā çiala etxayac, eta handic

beré bi semiac presoner vteiric, eta guero rançoïña pagaturic, semiac eta beré buria handic libratuic, eta guerlac moyen hartçaz beré fiña oukhenic, azquenian Charles de Bourbõ Erromaco hiriaren harçian morroïllan gora ezpata escuan igaiten çela, colpez hil içan cela, dio historiatic eta haren gorputça cayeta daritçon, Italiaco hirian ehortçi çutela, eta haren thombaren gaiñian epitaphio eder hau lengoaya Italianoz esquiribatu çutela.

Francia mi dio la leché
 Espaigna fuerça, y ventura.
 Y Roma mé dio la muerte.
 Cayeta la sepultura.

Erran nahi baita euscaraz guré lengoagian,

[25]

Françiac emandraut eznia,
 Espaignac Indar, eta ventura,
 Erromac herioa,
 Eta Cayetac sepultura.

Bekhatoria, considera eçaçu othoy çer erranen den Cutaz eta nitaz guré ondoan, guré ondocoec erranenduté, non sorthu guiren, nola biçi içan guiren, cer eguindugun, eta nola hil guiren, guré biçian, eta guré hilçian e guinditugun actioniac, edo onac edo gaixtoac, içanen ditutçu guré iugiatic, edo ceruan, edo Iffernuan errecompensu, edo punitione emaiteco, edo batera, edo bertcera condenatçeco; orhoit çaito munduco onetatic, estugula deus eré gurequila eramanen guré obrac baiçy, onac, edo gaixtoac, khanabat, edo bigua lur, athorribat, eta mihissebat hursbat edo biga, içanen direla, guré azquen onac, gure possessioneac, eta guré thresorac, handic harat guré gorput ça Ioanen dela, chicharië tripara eta lurthuco, eta herraustuco dela, eta guré arimaren ostatu cerua, edo Iffernua içanen dela eta haren ostatu lagunac edo demonioac, edo Aingueruac içanen direla, gratian parti badadi, Iencoa segur, bekhatian badoa deabrua harençat, infaillible, educaçu hori gogoan, hiltçiaz orhitçité eta çeruco Iencoa baita çuré Prinçia eta Erregué naturala, eta legitimoa, haren enseignen eta mandera pian çuré armac soldadu onari emanden beçala, carreya itçacu, haren fauoretan eguiñ çacu guerla gauaz, eta egunaz, Prinçé trompeur eta falso hari çein baita sathan, hala eguiñ ezpadeçaçu Iaquineçaçu oray, eta guero, herioac çuré arima, çuré gorputçetic separatu dian beçain fité, chichariec çuré gorputça lurpian Ianen dutela, eta deabruec çuré arima iffernian.

[26]

Paganoén artian Françiac Prinçé Catholicobat ekharridut astez, neuré òsa hilçeco bidia akhauatçen nuyan lehen capitulo huntan, eta vstez paganoer ohoré eguin nuyan, Prinçé Françés bat emanic, beré compaňian lagun. Baiña oraño ondar huntan, bigua edo hirur besté paganoren erranac hiltçiaz, ditçagun escriua, eta guero goaçen fité

bigarren capituliaren ikhustera, eta iaquitera çer dioten ené bidiaz escritura saindian irakhurtçen diren passagé sacratiec.

Armenia, Macedoniaco Anderé handi batec, mundian çen goiz oroz beré bilhuac, irez ondoan, herhaustatçen çutian, herhautxbatez, çein baitçen hillen heçurretariç eguina, eta hori eguitian çian anderé harc herioaren markhac, seiñaliac, eta haren necessitatia, beré bilhoetan, beré beguien aitçinian, eduqui leçan.

Vlpianus, bertçé Iaun handibatec, beré armentan, eta deuisa orotan eduquitçen çian paon bat, çeignec soguiten baitçian beré hoiner, haren piã hitz hoyec ezquiribaturic, neuré miseria contemplatçen dut.

Archsilas Medaco Erreguiac, bertçé Coroaric beré buruan etçian nahi eçarri lilis, eta floquez eguinic baiçy, bere buruari representatçeco, lurreco Erresumac, hiltçen, galtçen, eta deseguiten çirela, lilibaten paré, eta nola lilia, eta floca, egunbatez iguzquiac sortçen, eta hiltçen, ikhusten baiçutian hala hala Erresumac eta handitassunac peritçé çirela.

[27] Pelocidaz Erregué handibatec, beré lepoan behera egun oroz, ampolabat ekhartçen çian vrkhaturic beré aitçiñeco Erregué hillaren heçurretariç herrautxez betheric, orhoitçeco hura beçala, lur çela, eta herrautx, eta harc beçala lurthu, eta herrraustu beharçiala.

Bekhatoria, has, eta akhaua eztuzu edirenen bat ené bidian libru huntan, nic içendatu dustadan paganoetan, non eztian hartu, herioaren memoria, onsa hiltçeco, erremedio segura, bidé ona, eta chuchena; eta bidé hau bera, çuc eta nic ezpadeçagu ordu onez eduqui miserabliac gututçu eta galdiac, çuré eta ené reprochia eta punishmentia handiago eta grauiago içanenduçu eçiez pagano hayena, çeren hayec ezpaituté legueric, ez federic, eta guc bay, halatan siñhetxi behardiagu, guiristiño gaixtoa IESV CHRISTOREN religioniaren centré biçi dena, eta diabru beno sordeich dela paganoa da legueric ez federic eztiana: eta christigno gaixtoac, Iencoaren eta eliča saindiaren manien contré biçidenac estu federic, çeren fedia obra onac gabé fedé hilla da, hala nola, fedia obrac gabé, dio Iondoné Iakhubé Apostoliac, *Sicut corpus mortuum est sine spiritu, ita fides mortua est sine operibus.*

D. Iacob
ep. cap. 2
saluanus

Episcop. Mas-
siliensis in
li. 3. de vero
in dicio
& prouid. Dei.

Halaber errandu ederqui bertçé doctor handibatec, *Vera fides Christiani est Christi mandata seruare, nomen sine re, & officio suo nihil est.*

Eguiazco christigñoaren fedia da IESV-CHRISTOREN manien beguiratçia, içena, gauça içana gabé, eta beré eguin bidia gabé, ez deusbat da.

[28] Halatan bekhatoria, çu eta ni pagano gututçu Iencoaren contré Ibiltçen guireño, eta oraño pagano bano sordeich, çeren daquigularic leguea, eta leguiaren defenza, ezpaitugu beguiratçen, ez bata, ez bertçia eta hartan baitugu erakhusten guré malitia, eta guré bekhatia handiagudela, eta crimenelago hayena beno, dugularic legué ona, eta legué

saindia, guihaur beiquira leguiaren beguiratçale gaixtoac, erran dian beçala aitçineco doctor berac libru berian.

Kn hoc magis culpabiles sumus, si bonam legem colimus, & mali cultores simus. isdem eodem lib.

Mehatçu hori bera, eguindu guré salbaticiliac guri orori, *Qui nescit voluntatem Domini sui, vapulabit paucis, qui autem scit, & non facit eam, vapulabit multis.* Luc 12.

Beré Iaunaren berondatia eztaquianac, gastigu, eta punitione arhiña, eta simplia vkhenendu; bena daquianac beré Iaunaren borondatia, eta hura ez complitçen, halacoaren gastigua, eta punitionia, handia içanen da, eta graué.

Paganoac estaqui Iaunaren borondatia, eta debetia, eta guc bay; ham-batequi guehiago bekhatu eguiten dugu. Paganoac eztaqui paillardia bekhatu dela guc bay, çeren leguiac erakhusten beitraucu, *non mechaberis*: eziçala paillard, eta Apostoliac ere dio, *Concupiscentiam nesciebam nisi lex diceret, non concupisces*. Esnaquien concupiscentia cer erran nahi çen, leguiaç ezpalu erran, ezteçala desira iniustoqui. Rom. 7.

Erran ahal dirogu bekhatiaz, aithortçen, eta eçagutçen diala Iencoa ezpaiñez, eta mihiaz solamenté eta beré obrez vkhatçen diala Apostolu berac dioena: *Confitentur se nosse Deum, factis autem negant* ad Tit.I.

Leguia irakhourtçen dugula, eta ez beguiratçen, *Legimus legem, & non facimus eam.* [29] Rom.?
(illisible)

Eta lekhu berea apphalago: *Quid gloriaris in lege, per præuaricationem? legis Deum in honoras nomen enim Dei per vos blasphematur inter gentes?*

Traidoria, eta malhurusa, leguiaren haustian çergatic vrguillian eta vanitatian sartçen çira leguiaren Iencoa desohoratçen duçu eta Iencoa ren içena çietçaz gentilen artian blasphematuric guertatçenducu, minço çen bertçé orduz Apostolia, Christiño gaixtoer, eta egun, çuri eta niri, bekhatoria. Ibidem

Conclusionia eman eçaçu Iencoaren contré bekhatian biçi guireno pagano guirela, eta pagano beno sordeich edo gaixtoago guirela, çeren harc eztaqui çer hariden, eta çuc bay, harc ohoinqueria, debekhu dela, estaqui, guc bay; harc esiaqui heriotçia, bekhatu dela, guc bay; eta ignorantiaç hura baitu desenkhusatçê eta gu iaquitiac condēnatçen.,

Haboro diot demonio guirela, eta sordech, obra onac vtçiric, bekhatian biçi guireno.

Demonioac dian malhurric handiena gratia galduric, iffernura eroriz gueroz, da, iossiric, itçaturic, eta obstinaturic baitago beré malician, eta gaixtkherian, halaco moldez non ézpaita possible, diuerti, eta separa ahal dadin beré obiectoaganic, behin hartçaz hautu, eta electione eguiñez gueroz, behin besarkhatu dian gauça, eçin quita baitiro, eta behin quittatu dian gauça eçin bessarkha baitiro, hala dio San Thomas

[30] D. Tho.
cf. 64 ar 2.

Doctor Angelicoac. *Voluntas Angeli adhæret obiecto immobiliter facta electione, ita ut non possit relinquere quad amplexa est, nec amplecti quod relinquit.*

Psal. 37.

Psalmistá Royalac eré hori bera erraiten çian: Iauna çuré extayec bethi hastio çutié, eta hayec çuré contra duten malicia, bethi gora doa, hauda deabruen obstinationearén lehen causa.

Superbia eorum, qui te oderunt ascendit semper.

Segond causa da, guré Iencoac hayen conuersioneari beré gratiaz eguiten dian vkhoa, eta erreffus iustua, çérè baita iustu, conformé, eta eman Iencoarén decreto eternalari; Aingueru gaixtoac, eta arima gaixtoac behin damnatuz gueroz, Iencoac hayer eleçan eman gratiaric, itçulçeco penitentiara, eta conuertituric saluatçeco, hau da segond causa.

Heren causa da çeren iusto baita, eta guré Iencoac iustuqui iuiatu baitu, Aingueruen faltac eta bekhatiac, elitian barkha ez erremeti, faltetan eta culpan, eroriz gueroz, baiñan liren iagoiticotz irremissible, eta irreparablé hala nola, iustu baita guiçonon faltac, eta bekhatiac elitian barkha, ez remeti, hilez gueroz, hala dio San Damascenec, *Hoc est hominibus mors, quod est Angelis casus, seu lapsus.*

D. Dam de
fide Orthod
cap. 2.

Bekhatien barhamendiaren respectus Aingueruen faltac, eroriz gueroz, eta guiçonarenac hilez gueroz, orobat dira, bardin dira; errayten balu beçala hala nola guiçonac hilez gueroz beré bekhatien barkhamenduric ecin baituqué, hala, hala, Aingueruac eré eroriz gueroz eztuqué barkbamenduric, hau da demonioaren obstinationiaren beren causa.

[31]

Halatan segur da, bekhatoria çu eta ni, eta gu beçalacoac bekhatian iossiric eta obstinaturic egoyten guireño, obstinatione haren respectus, deabru, eta demonio guirela hargatic guré Iaunac, çuri eta niri eta gubeçalaco demonio harritu gogorri oyhu, eta heyagora eguiten çian, *Ierusalem, Ierusalem, quoties volui congregare, & sicut gallina congregat suos pullas, & noluisti?*

Act. 7.

Ierusalem, Ierusalem, eguin ahala çembait aldyz eguindut çuré bilçeco, eta enuçu entçuen etçiñen nahi gin, oilloac bere vmeac eta chichac edo chitoac, hegualetara beçala, nic eré çu nigana bildu nahi cintudan, bena ené deiari eta ené boçari gorrarena eguinduçu, guré Iauna berac errayten çian iudu gaixtoey, eta hayen personan guri orori, *Vos spiritus sancto semper resistitis*, harritu gogorrac espiritu saindiari guerla, eta resistentia bethiere eguiten duçié.

Iacob. 2.

Hambatequi bekhatian harrituric perseueratçen duguño demonio guira, deabru guira.

Hartan guireño demonioac baiña gaixtoago guira, sordeich guira: sathanec nola beré dóuetaric ezpaitu deuseré galdu Iencoaren gratia baicic badu fedé eta sinhestendu badela Ienco bat, eta oraño badu eré

Iencoaren beldurra, haren icenaren aipatpiaz, eta entçutiaz lekhu orotan lotsatcē da, eta ikharatçen, hala dio Apostolubatec, *Credis quia unos est Deus, bene facis, Dæmones eredunt, contremiscunt, & ingemiscunt.* Sinhesten duçubadela Ienco bat, onsa eguitenduçu, demonioec eré baduté sinbesté hori, ikharatçen dira, nigar, eta cincuri hari dira. Halatan, bekhatoria, behaçau, deabruac badiçu bi gauça fedia, eta beldurra, çuc eztuçu batbaiçi fedia solamenté estuçu, beldurric çuré fedia eré fedé hilla duçu hambatequi diabrua baiño sordeich çerela vkha diroçu. [32]

Hargatic spiritu saindiac erraytendu, *Vtinam aut calidus esses, aut frigidus, nunc autem quia tepidus es, incipiam te euomere ex ore meo.* Apoc. 3.

Nahinuque bero ičan çine nit Christino ona beçala, edo hotz paganoa beçala, baiña çeren eppel baitçira, ez botz, ez bero, ez pagaño, ez Christino, neuré eçagucetic, cein baita emaiten aditçera ahoaz, hassi-conuçu çuré egoixtera eta accatçera.

Bekhatoria bertçé capitulia hassi gabé conclusioné huntan othoisten citat etciren pagano edo sorceich, et çiren deabru edo sordeich, ené bidian sar cité, orhitcité hilçiaz *Memento mori.*

Neuré adisquidia beldurriça çuri eta niri guertha daquigun Pharaó Erregueari beçala harc Moiseren, eta Iencoaren populiaren contra çuela Moisec eta haren Iédeec itxasso gorria bi partetara erdiraturic hayer passagé emaiteco, itxassoa iragan Cuten oiñac busti gabé Pharaon aldiz beré gendé ororequin itxassoaren erdian itho, edo hondatu, ikussi çueneã Pharaonec itxassoarē erdira çenian itxassoco vra elkharganat iuntatçen ceta oiuhu eta heyagora eguin çian: *Fugiamus Israelem, Dominus enim pugnat pro illis, contra nos.* Goacen, ihessy guibelerat, Ienco guré contra da, bena berandia cen, çeren vrac elkhargana bilduric, Pharaõ, eta haren gēdiac oro errāden beçala galdu, eta peritu çiret, hala dio escriturac, *Fugientibus illis, sed accurrerunt aquæ, & inuoluit eos Dominus in medijs luctibus.* Exod.14

Hala, hala, bekhatoria herioaren orena heldu denian, oyhu, heyagora çuc eta nic eguiñen dugun; dugun Ap-heça! dugun Fraidia! dugun Confessione! dugun Sagramendia! dugun espatio! dugun termiño penitentia eguiteco baiña miserabliac, eta galdiac gu, beldur nuçu eztugun vkhenē Ap-heçic, Fraideric, Confessioneric, Sagramenduric, Espatio-ric, Termaiñoric, ezten içanen penitentia eguiteric, ez lekburic, eta herioa çunçurretic lothuric, deboilla guitçan, eta lahardeca, IESVS erran gabé, herioaz orhиту faltaz, eta gorpitçac eriden beçaiñ fité beré ohia ilherrian, arima gaichoac, ediren deçan beré sepultura iffernuan Ienco misericordiosa, othoy hantic beguira guitçaçu. [33]

x x x x x x x x x x x x x x x x x x
 x x x x x x x x x x x x x x x x x x